

## Lesarriko tunela berriz zabalik, segurtasun maila altuena bermatzeko sistema teknologiko aurreratuekin hornituta

*Tunelak, gertakariak automatikoki detektatzeko gaitasuna duten 36 kamera adimendun ditu.*



Apirilak 12an, larunbata, eta Behobiako noranzkoan, lanak amaitu ostean Lesarriko tunela berriro ireki da guztiz. Gipuzkoako diputatu nagusi Eider Mendozak, Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako diputatu Felix Urkolarekin batera azpiegitura berritura egindako bisitan nabarmendu duenez tunelaren bi hodian eraberritze integralak “segurtasunaren eta ekipamendu teknologikoaren arloan Europako estandar gorenaren maila gainditzen du”. Era berean, azpimarratu du obra honekin Garraio Adimendunen Sistemen (ITS) eguneratze teknologikoari dagokionez egindako ahalegina, “inbertsioaren %60 segurtasuna, eraginkortasun energetikoa eta gertakarien kudeaketa aurreratua bermatzen duten soluzio teknologikoetan egin baita”.

Halaber, Mendozak azpimarratu nahi izan du, hasiera batean maiatzaren bigarren hamabostaldian aurreikusita zegoen berrirekitzea aurreratzea lortu dela, “proiektuan parte hartu duten guztien lankidetzak koordinatuari esker”, eta horrela, “Aste Santuko kanpainen trafikoko igoerak eragin ditzakeen afekzioak saihestu ahal izango dira”.

Diputatu nagusiak azaldu duenez, Gipuzkoako ahalmen handiko errepide-sare nagusia osatu ondoren —‘Gipuzkoako biribilgunea’ izenez ezaguna—, Foru Aldundiaren lehentasuna da “errepideen segurtasunean, erosotasunean eta jasangarritasunean aurrera egitea”. “Lesarriko tunelaren berritzeak urrats bat gehiago



dakar norabide horretan, trafikoaren segurtasunean, azpiegituraren eraginkortasun energetikoan eta etorkizuneko errepideetan beharrezko izango diren sistema adimendunen ezarpenean eragin oso positiboa izango baitu”, azaldu du, eta gaineratu du Gipuzkoak norabide horretan inbertsioak egiten jarraituko duela.

Lesarriko tunelean egindako hobekuntzen artean daude barruko instalazio guztien berrikuntza, egituren sendotzea eta teknologiaren berritze sakon bat. Zehazki, bost ebakuazio-galeria eguneratu dira, alderik aldeko haizagailu berriak, sute-hesiak eta LED luminariak instalatuz, segurtasuna eta eraginkortasuna bermatzeko. Gainera, zirkuitu itxiko 36 kamera instalatu dira, adimen artifiziala baliatuta gertakariak automatikoki detektatzeko gai direnak: gelditzen diren ibilgailuak, noranzko okerrean doazenak edo oinezkoak atzeman ditzaketenak, besteak beste. Horri esker, zaintza jarraitua eta erantzun azkarra bermatzen dira. Bidegik 23.822.890€ inbertitu ditu azpiegitura hau eguneratzeko, 24 hilabete iraun duten lanetan.

Mendozak azaldu du Lesarriko tunela 1998an proiektatu eta 2003an jarri zela martxan. “Gaur egun teknologia askoz aurreratuagoak ditugu, eta horiekin hornitu dugu azpiegitura hau, gure lehentasun nagusia egunero bi noranzkoetan igarotzen diren 20.000 ibilgailu baino gehiagoren segurtasuna bermatzea baita”, azpimarratu du diputatu nagusiak.

### **AP-1ean egindako azken inbertsioak**

Azken hilabeteetan, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Bidegi lanean ari dira etengabe azpiegiturak eta erabiltzaileei eskaintzen zaizkien zerbitzuak hobetzeko. Arlo horretan kokatzen dira, besteak beste, Eskoriatzako lotunea hobetzeko 1.068.430 € inbertsioa, edo atzo osteguna onartutako Arbizelaiko (Arrasate) zubi tirantedunaren berrikuntza, 1.338.260 euroko aurrekontuarekin eta zazpi hilabeteko epearekin.

Era berean, lizitatuta dago AP-1 eta AP-8 lotzen dituen zubiaren berrikuntza, Maltzagan, Soraluze, Eibar eta Elgoibar arteko elkargunean. Proiektu horren aurrekontua 7.953.330 eurokoa da, eta adjudikatu ondoren 25 hilabeteko exekuzio-epea izango du.

Azkenik, erabiltzaileei aurrez aurreko arreta hobea eskaintzeko helburuarekin, otsailaren 3tik aurrera martxan dago Ondartzan (AP-1aren Bergara Iparraldeko sarreran) kokatutako bezeroarentzako arreta-zentro berria. Bulego berriek egunean 25-30 pertsona inguru hartzen dituzte, beren gailuak kudeatzeko edo informazioa jasotzeko, Aritzetara joan beharrik gabe.

Zarautz, 2025/04/12

## Reabre el túnel de Lesarri equipado con sistemas tecnológicos avanzados para máxima seguridad

*El túnel dispone de 36 cámaras con inteligencia artificial para la detección automática de incidentes.*



Desde el sábado 12 de abril está abierto en ambas direcciones el túnel de Lesarri tras finalizar las obras en dirección Behobia. En la visita que la diputada general de Gipuzkoa, Eider Mendoza, acompañada por el diputado de Infraestructuras Viarias y Estrategia Territorial, Félix Urkola ha realizado a las obras ha subrayado que la rehabilitación integral del túnel, con ambos tubos renovados, supone "un nuevo avance que cumple y supera los más altos estándares europeos en seguridad y dotación tecnológica".

Asimismo, ha resaltado especialmente el esfuerzo en actualizar tecnológicamente los Sistemas Inteligentes de Transporte (ITS), ya que "el 60% de la inversión responde a soluciones tecnológicas avanzadas de seguridad, eficiencia energética y control de incidencias". Asimismo, Mendoza ha destacado la reapertura anticipada del túnel, inicialmente prevista para la segunda quincena de mayo, "se ha conseguido gracias al esfuerzo coordinado de todos los implicados en el proyecto, lo que permitirá evitar afecciones durante la campaña de Semana Santa".

Según ha explicado la diputada general, tras la culminación de la red viaria de alta capacidad del territorio –conocida como ‘rotonda de Gipuzkoa’–, la prioridad de la Diputación de Gipuzkoa es “avanzar en la seguridad, la comodidad y la sostenibilidad” de las carreteras. “La rehabilitación del túnel de Lesarri supone un paso más en ese sentido, ya que tendrá un efecto muy positivo en la seguridad del tráfico, en la eficiencia energética de la infraestructura y en la dotación de los sistemas inteligentes que serán necesarias en las carreteras del futuro”, ha explicado, para añadir que Gipuzkoa seguirá realizando inversiones en ese sentido.



Las mejoras implementadas en el túnel de Lesarri incluyen la renovación integral de instalaciones interiores, el refuerzo estructural y la modernización tecnológica. Concretamente, se han actualizado las cinco galerías de evacuación, instalándose nuevos ventiladores longitudinales, compuertas cortafuegos y luminarias LED para mayor eficiencia y seguridad. Además, se han instalado 36 cámaras de circuito cerrado con tecnología avanzada de detección automática de incidentes mediante inteligencia artificial, capaces de detectar situaciones como vehículos detenidos, circulación en sentido contrario o presencia de peatones, garantizando así una vigilancia permanente y una respuesta inmediata ante posibles incidencias. Bidegi ha invertido un total de 23.822.890€ en la puesta al día de esta infraestructura en unos trabajos que se ha desarrollado a lo largo de 24 meses.

Según ha explicado Mendoza, el túnel de Lesarri fue proyectado en 1998 y puesto en servicio en 2003. “Ahora disponemos de tecnologías muy superiores con las que hemos decidido equipar esta infraestructura, porque nuestra prioridad absoluta es garantizar la seguridad de los más de 20.000 vehículos que en ambos sentidos a traviesan a diario esta infraestructura”, ha subrayado la diputada general.

#### **Nuevas inversiones en la AP-1**

Dentro de los esfuerzos recientes de la Diputación y de Bidegi para la mejora continua de las infraestructuras y de los servicios se pueden enmarcar las obras de mejora del enlace de Eskoriatza con una inversión de 1.068.430 € o la adjudicación aprobada el jueves 10 para rehabilitar el viaducto atirantado de Arbizelai en Arrasate con un presupuesto de 1.338.260€ y un plazo de ejecución de 7 meses. También está licitada la renovación del viaducto que conecta en sentido Behobia la AP-1 con la AP-8 a la altura de Maltzaga en la confluencia de Soraluze, Eibar y Elgoibar por importe de 7.953.330 € y un plazo de ejecución, tras su adjudicación, de 25 meses.

Por último, y de cara a mejorar la atención presencial a los usuarios de las autopistas, desde el pasado 3 de febrero está plenamente operativo el centro de atención al cliente ubicado en Ondartza, en la entrada de Bergara Norte a la AP-1. Las nuevas oficinas registran una media de 25-30 personas diarias que acuden a gestionar sus dispositivos o recabar información sin necesidad de desplazarse a Aritzeta.

Zarautz, 2025/04/12